

*Erresistentziak jaraitzen du,
defentsa bakarra eraso da*

NoMUOS

**Niscemin (Sizilia)
antena eta radar militar
Estatubatuarren
ezarpenaren kontrako
mugimendua**



Informazio gehiago:

noMUOS.org

informa-azione.info

es.contrainfo.espiv.net

Contrainfogatik gaztelerara itzulia:

contrainfo@espiv.net

<http://contrainfo.espiv.net/>

Berrargitarapena:

Rechazo distro

Rechazodistro.wordpress.com

Mahastiak kalea, 63. Santurtzi (Bizkaia)

Euskarazko itzulpena:

ekhi89@hotmail.com

2013ko azaroa

AURKIBIDEA

- **NoMUOS (Mensile anarchico INVECE #21)**.....**4.o**
 - MUOSa
 - NoMUOSa
 - Non daude kokatuta lurreko lau estazioak?
 - Noiz egon beharko litzateke martxan MOUSa?
 - Nork nahi du MUOSa?
 - Nork eraikitzen du?
 - Itzul gaitezen Italiako eremura! Hobe esanda, Siziliakora.
 - Erresistentzia baten kronika
- **Mirikani Jativinni! (Sizilia libertarioa)**.....**8.o**
 - MUOSa eta etorkizuneko gerrak
 - Eraso elektromagnetikoa
 - Militarizazioa eta mafia
 - Apurtu beharreko zor-agiri bat
 - Herritar oposizioaren eraiki
 - Borrokaren aro berria
- **Roma, Italia: MUOSari EZ. Mobilizazio antimilitarista berri baten alde (Anarchici Antimilitaristi Roma)**.....**13.o**
- **Ekintzaileak base amerikarreko dorreetan: bi atxilotu**.....**15.o**
- **Erresistentziak jaraitzen du, defentsa bakarra eraso da (NoMUOS ekintzaileak)**.....**17.o**
- **Kontra Info elkarrizketa Lisboan NoMUOSei**.....**19.o**
- **Radar eta antenen aurka: Ekintza zuzena!**.....**22.o**

MUOSa¹

MUOSa, Mobile User Objective Systemen akronimoa da. Honen eraikuntza Niscemin (Sizilian, Italia) hasi da, *Global Hawk*² dronen kontrolerako AEBn lurreko lau terminalerako bat izango dena. Telekomunikabide globalarentzat antena eta satellite sare erraldoia eta “perfektua” osatzen du, ez bakarrik gidaririk gabeko hegazkinak kontrolatzeagatik baizik eta uranio pobretutako misilak eta miniaturazko arma atomikoen kontrolagatik ere bai.

MUOSa Sigonellako (Sizilia) base militarrekin konektatuta dago, hemendik gaur egun Predator eta Reaper dronak aireratzen dira, hauek aldi berean tokiko atsekabea eta kolpe globala adierazten dutelarik. Niscemiko base militarren oinordeko (1991z geroztik funtzionamenduan); ez luke soilik mediterranean artelatzaren babes eremua murriztuko; ez luke soilik landa lurretako kolonizazioa 1660000 m²-ra haundituko; ez luke soilik 20 km erradioko biztanleria gaixotasun larri eta kronikoen arriskura jazarriko, uhin elektromagnetikoengatik ehunen nekrosia barne; ez luke soilik antenek eragindako interferentziengatik hegazkinen garraiatzen dituzten bonbak nahigabe aktibatzeiko arriskua sortuko (1967ko uztailaren 29an Tonkin-eko golkoan gertatu zen bezela); ez luke soilik Siziliako militarizazioa areagotuko baizik eta bertako botere “politiko-hitzarmentzaile” mafioso ere bai; Niscemi munduko Cybergerraren lau terminalerako bat izango litzateke. Dimentsio hauetako azpiegiturekin, edozein pantailaren aurrean eserita, Pentagonoko burokrata batek txikizioa eta heriotza bidali ditzake planetako edozein txokora “sakatu” sinple batekin, duintasun zipitzik gabe (iritzi herrikoietatik eta monitoreko “objektibo” ikusgarrietatik urrun).

MUOSeko antena eta satelliteak NRTFaren (Naval Radio Transmitter Facility)³ barne daude, urpeko nuklearrekin komunikabideak areagotzen dituzte eta gainontzeko komunikabideak galarazi ahal dituzte, eurenak soilik irits daitezten. Jakina da, komunikabide globalen kontrola dela gerla garaikidearen funtsaren zati bat.

1 Mensile anarchico INVECE (hilabetekari anarkista) 24.zkia 2013ko otsaila. Hemendik atera eta itzulua.

2 Aireko zelataketara bideratutako gidaririk gabeko aire ibilgailua da Northrop Grumman RQ-4 Global Hawk-a. Hegaldi denboran markak apurtzen ditu (30 ordu), era berean altueran (19928 metro). Egunero 103.600 km² -ko lursail informazioa eman dezake.

3 Niscemiko NRTFa Sigonellako itsasareko estazioaren hego-mendebaldean kokatuta dago. Hau, frekuentzia altu eta baxuko uhin transmisioko instalazioa da. Telekomunikazio estaziora eta Itsas Ordenagailuari babesa emateko balio du.

NoMUOSa

Testuinguru honetan garatzen da desadostasuna, hasiera batean kide gutxi batzurenatik eta arima kritiko urri batzurenatik azaldua (denak tamaina desberdinean 80.hamarkadan Siziliako Comisoko NATOren base militarren aurka borrokatuak), gero Nissemiko biztanle batzurenatik eta jarraian herri txiki hontako biztanleria ia guztiarenatik, olio orban baten moduan zabaldua irla osoan zehar. Horrela, NoMUOS komiteak sortu dira Siziliako hainbat herri ta hiritan, biztanleriaren parte hartzea eta arazoarenganako jakituria areagotuz. Kontestu heldu honetan, eragin instituzionaleratik eta faxismoaren presentziatik aldenduta, NoMUOS koordinadora bat sortzeko batu gara, non bultzatzen diren baloreak askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, antifaxismoa, antimilitarismoa, antiarrazismoa eta homofobiaren aurkako borroka diren.

Koordinadoraren asmo gutunean argi eta garbi adierazten dira batez ere hiru alderdi. Antimilitarista, MUOSa mundu mailako ofentsiba militarren gailutzat jotzen duena, lasterketa teknologikoan sortutako protagonista eta gerlaren erabilera bidegabeaz baliaturik munduko lehengai globalen kontrola bilatzen duten sistema militarren dituen. Uharteko presentzia amerikanoa salatzen dute, 1943az geroztik AEBetako indar armatuen interesei gordetako eremuan, basez, biltegiz eta egoitza militarrez bete dute lurraldea bai berezkoak baita NATOkoak badira ere eta Sigonella Mediterraneoko base militar garrantzitsuena, munduko dron hiriburu eta amerikar estrategia militarren zentru bilakatu dute.

Mugimenduaren intereseko beste bi alderdiak inguruko ekosistemen orekaren babesean eta biztanleen osasunean oinarritzen dira.

Koordinadoraren sorrerarekin, NoMUOSaren kontrako borrokan fase berri bat hasten da: basearen atarian elkarretaratze permanentea, radarrak dagozkien plataformetan jartzeko megagarabien bidea blokeatzeko asmoz. 2013ko urtarrilaren 10a bitarte, ordenaren indarren (Digoak⁴, antidisturbioak, Carabinieriak, eta noski, militarren) presentzia haundiaz eta karga polizial gogorrekin blokatze saiakerak porrot egiten du eta garabiak lanetara iristea lortzen dute.

Non daude kokatuta lurreko lau estazioak?

Lurreko lau estazioak Waiawan (Hawaii), Norfolk (Virginia), Geraldton (Australia) eta Nissem (Italia) kokatuta daude, aurreneko hiruak, jakin dugunatik amaituta daude. Hauen kokapenak planetaren eta bereziki munduko hego-ekialdearen (literalki inguratuta daukate!) ikuspegi osoa edukitzea ahalbidetzen du.

⁴ Italiako polizia antiterrorista.

Noiz egon beharko litzateke martxan MOUSa?

2012an lehenengo MUOS satelitea bidali zenetik, hasierako ahalmen eragilea dago martxan eta ahalmen eragile osoa 2015 edo 2016an lortuko litzateke, gainontzeko sateliteak bidaltzearekin batera.

Nork nahi du MUOSa?

Pentagonoaz beste, nola ez bere itzalean garatzen den botere sistema guztia. Zehazkiago, lokalki eskualdeko presidente ohia, Raffaele Lombardo (Movimiento per la Autonomie alderdiko liderra), Finmeccanica ingeniartzako (aeronautika eta defentsako sektoreko enpresa italiarra) exikertzaile baten laguntzaz, Livia Livreri. Cataniako unibertsitateak 475 milioi dolar jaso ditu Pentagonotik SPAWAR (Space and Naval Warfare Systems Center Pacific)⁵ bidez, MUOSarekin zuzenki lotuta daudenak. Palermoko unibertsitatea AEBko Defentsa departamentuarekin laguntzen du “bihurketa energetikoen aplikaziorako material nanoestrukturatuen produkzio elektronikoan” (70 mila dolarreko finantziazioarekin).

Nork eraikitzen du?

Programa (6 milioi dolarrekoa, gutxienez) Lockheed Martini esleitua dago. Enpresa hau caza F-35en produktorea da, 126 mila langilerekin eta 45,7 mila milioi dolar fakturaturik urtean, AEBtako produkzio belikoko enpresa handiena da.

Niscemiko eraikuntza lanak Arcugnanoko (Vicenza, Véneto, Italia iparraldea) Gemmo P.p.A. enpresak burutzen ditu, Lombardoren finantziatzaileen artean azaltzen dena.

Itzul gaitezen Italiako eremura! Hobe esanda, Siziliakora.

Hasieran, MUOSa Sigonellara zegoen bideratua, itsasaireko estazio handira, Mediterraneoko base militar estrategikora. Marina militarra ohartu zenean MUOSaren frekuentzia altuek ontziko instrumentuetan interferentziak sortu ahal lituzketela hegazkinetan, bai militarrek edo zibilak izan, Cataniako Fontanarossa aireportu hurbilekoetan, hegazkinak erortzeko edo agian garraiatzen dituzten bonbak lerrarazteko arriskuarekin, instalazioa segurtasun distantzia batetara mugitzea erabaki zen, leku berritzat Niscemi aukeratuta (Sigonellatik 60 kmra). Dagoeneko, Niscemin, 1991tik (80.hamarkadan eskuratu ziren lurak, urte haietan Comison zegoen NATOren misil basearen

⁵ Zentro Bareko itsas eta espazioko gerra sistemak, AEBko Marinaren ikerketa, garapen, saiakera eta azterketa plana dira, ozeanoko zuzendaritza, kontrol, komunikazio eta zelataritza sistemetarako.

desmilitarizazioaren aldeko borroka bizirik zegoen), funtzionamenduan dagoen komunikazio estazio haundi bat existitzen da, NRTF N8a alegia, honek frekuentzia altuak (HF) eta baxuak (LF) erabiltzen ditu, 2006an finkatu zen ISABPS deituriko sistema gehigarriarekin, honek datuak prozesatu eta komunikatzen ditu frekuentzia baxuetan. Guztira, 41 antena eta hauetako bat 150 metroko garaierakoa eta frekuentzia baxuak erabiltzen dituen, honek ozeano sakonean dauden urpekoetara komunikazioa iristea ahalbidetzen du, ontzi propulstaturara eta eduki nuklearretara esaterako.

Erresistentzia baten kronika

2013ko urtarrilaren 10 eta 11 bitarte, Niscemi hiria estatu indarkeriaren agenteengatik hartua izan zen. Indarkeriarekin sartu zen makinaria ilara MUOS antenak jartzeko, manifestarien blokeoak desegin eta gero. COMINA enpresako 2 kamio eta 4 garabi ziren, antidisturbio, polizia eta Carabinieriz babestuak. Poliziak, base militarrean bidean kontrol ugari jarri zituen, hiri desberdinetatik elkartasunean batzeko asmoa zutenak irits ez zitezten. Gauerdiko ordubata eta erdietan Niscemiko NoMUOS komiteak lehenengo blokeoa burutu zuen. Poliziak hainbat kargak burutu zituen, baina ahaleginak eginda ere manifestariak zenbait orduz jasan zituzten zartakoak. Gehiegizko indarkeria erabili zuen poliziak, agintariei jaramon egiteagatik. Hirurak eta erdietan, konboiak pasatzea lortu zuen, Lauretan, bigarren blokeo bat burutu zen, era baketsuan honakoa baina ala eta guztiz ere poliziagatik erasotua dena. Laurak eta erdietan, konboiak base militarrean sartzea lortzen du. Alde batetik, porrotaren parean jarri nahi izan dugu, gertatu dena gogoeta interesgarri batzuetara eraman gaituelako, ekintza zuzenen erabilera testuinguruaren arabera eraginkorragoa izan daiteke, erresistentzia pasiboaren erabileraren aurrean. Edonola ere, gertatutakoak ez du borrokarako grina itzali, kontrakoa ere esan genezake grin hori berpiztearekin batera kopuruan ere haunditu egin dela.

Gaur atzo bezala Mirikani Jativinni! Geldi ditzagun MUOSa eta kontrolerako gailu guztiak! Lurraldean militarizazioari ez! Gai kaltegarri guztiei ez!

MIRIKANI JATIVINNI!⁶ (Sizilia libertarioa)

Comisoko misil basearen kontrako mobilizazio internazionalen 30.urteurrenean, Siziliako hego-ekialdeko biztanleak, berriro ere kalera ateratzen dira Niscemin, Comisotik 15 km-ra lerro zuzenean, eraikitzen ari diren base militarren kontra.

Siziliako militarizazioa gerra hotzaren amaieratik ez da murriztu, baizik eta lurralde berriak gehitu ditu, AEBtako gerra-estrategia modernoei egokituta. 80.hamarkadaren amaieran itxitako misil baseak fase berri eta arriskutsuago baten hasiera besterik ez ziren izango eta ez gerraren gaineko bakearen garaipena. Fase berri honetan, gelditzen zen munduko superpotentzia bakarra, gainontzekoen (Irak, Afganistan...) baliabideak indarkeriaz ustiatzeko eta Txinari, gaur egun Ameriketako Estatu Batuek baina indartsuagoa izan daitekeen eta azaleratzen ari den superpotentziari aurre egiteko proiektu berriak batzen zituen. Eta Sizilia da hiltzera doan bildotsa, bertako baseak indartuak izan dira eta tropak, ibilgailuak eta beste tokitako ofizialak, Europa erdi eta ekialdekoak, hartu dituzte.

AEBk prestatzen ari diren gerra berrien erdian aurkitzen dira ordenagailuak, geroz eta arma zehatzago eta hilkorragoak zuzentzen dituzte, hauek erabilerak amerikar ejertzitoei ia garaiezina bilakatzen du. Gerla hau gidaririk gabeko hegazkinak, misil interkontinentalek, satelite sistemak burutuko dute; geroz eta hildako gehiago sortuko dituzte, bereziki zibilen artean baina hildako amerikarren kopurua zeron utziko du; AEBtara ez dira izar eta barren banderaz estalitako hilkutxa gehiago iritsiko; horrela, Pentagonoaren eraso politikaren sustatzaile zen faktore negatiboetako bat desagertuko litzateke; amerikarren ikuspuntutik gerra desagertuko da eta “jolas gerra” bilakatuko da ordenagailu operadoreentzako.

MUOSa eta etorkizuneko gerrak

Niscemiko MUOS basearen eraikuntzak erabaki hauen zati bat adierazten du; planeta osoan bakarrik lau MUOS base aurki daitezke: Australia, Hawaii, Virginia eta Sizilian; azkeneko hau 5 milioi biztanle baino gehiagoko lurralde batean dago, 30 mila pertsonako hiri batetik 2 km-ra eta gainera komunitate-intereseko leku baten barruan kokatua: Niscemiko artelatz-basoan. MUOSa, frekuentzia izugarri altuak erabiltzen dituen satelite bidezko komunikabide sistema hau, amerikar gerra berrien sostengua da; martxan jartzean (2015a inguru) aldi berean lurreko, aireko, itsasoko eta urpeko indar armatu estatubatuarrak nonahi daudela ere, alertan eta akzioan jarriko ditu; MUOSaren menpe egongo dira dronak (gidaririk gabeko hegazkinak) Libiako

⁶ <http://www.sicilialibertaria.it/2012/08/03/mirikani-jativinni/> -tik atera eta itzulia.

gerran oso emaitza onak eman zituztenak eta euren hiriburua Sigonellako basean aurkitzen zena. Dron-multzo handiak aterako dira Siziliatik Munduko edozein txoko bonbardatzeko. Beraz, Sigonella eta Niscemi, baina baita ere Trapani eta Catania Fontanarossak ezusteko blokeoak sufritzen ari dira dronen lurreratzeen ondorioz, hauek hegaldi zibilen aurrean lehentasuna bait dute.

Arrazoi hauengatik, MUOSa ezin da niscemitarren edo asko jota siziliatarren arazotzat hartu, horrela pentsatzeak miopia politikoaren eragin larri eta burugabea uzten du agerian.

Eraso elektromagnetikoa

MUOSak sortzen dituen isuri elektromagnetikoengatik da arriskutsua, mota guzietako aparailu elektronikorekin interferentziak sortzen ditu; gainera, bere uhin sortak bidean aurkitzen duen edozein gauza izorratzen du, horregatik hasiera batean Sigonellan jarri behar zuten basea, Niscemira (60 km-ra) mugitzea erabaki dute: baseko eta hegazkin militarretako gailuek arrisku larrian egongo bait liriateke. Inguruan, 120 km-ko erradioan, pertsonen bizitza arazo larrien eraginpean egongo litzateke, bereziki ume eta zaharretan: garuneko tumoreak, sexu-organoetan, maskurian, bularretan, umeen leuzemia, bihotzekoak, melanomak, linfomak, umeki malformazioa, antzutasuna, ume galtzeak, minbizi zelulen garapenaren azkartzea, immunologia sisteman mutazioak, ubelaren galtzea, bertigoak, depresioak eta loezinak jasatera behartuko lituzkete, honela Radio Vaticanaren⁷ emisioetako biktimak ikaratuko lituzke (30000 Watt 2 milioiren kontra); ingurunea modu itzulezinean ikusiko litzateke eraginda. Egungo base amerikarrak baino askoz igorpen gehiago sortzen ditu; NRTF (Naval Radio Transmitter Facility) hegazkinen, sateliteen, propulsiio nuklearreko urpeko ontzien irrati komunikazioetarako 1991n Niscemiko artelatz-basoan eraikia; oso kopuru arriskutsuan igorritako frekuentzia biziki altu edo baxuko uhinak eta niscemitarren osasunean eragindako kalteak oso haundiak dira, Gelako petrokimikarekin nahasiz gero eta ikuskapen egokirik ez dutela jakinda, arriskua izugarritzkoa da.

Militarizazioa eta mafia

Ezohiko irispena duen militarismo sendo baten aurrean aurkitzen gara; Siziliako uharteko baseak sustatzen dira eta uharte txikiagoetakoak ere bai, bitartean Mesinan, itsasadarraren (Sizilia-Italia kontinentala) bihotzean kokatua, Armategi militar historikoa, Alianza Atlánticaren bi mila tonarainoko (“kanal estua” deiturikoa) itsas-unitateen “desmilitarizazio eta

⁷ Sede Santuaren irrati internazionala da. Vatikano Hirian dago. Bere helburua Aita Santuaren, Sede Santuaren eta eliza katolikoaren mezu eta ekintzak zabaltzea da. 2005ean hasitako ikerketa batek, bere antenei egozten die inguruko herri eta hirietako minbizi maila altuen errua.

desartikulatzeko” zentru gorena bilakatuko litzateke, aldamenean biltegitratze gunea dauka eta bertan sustantzia kutsakor eta kantzerigenoak, hondakin toxiko eta bereziak, eta batez ere amiantoazko kantitate itzelak gordeko lirateke hiri barnetik oso gertura.

Guzti honetan, mafiari lotutako enpresak mugitzen dira, amerikar bezeroei lanen ordena eta normaltasuna bermatzeko, Nissemiko zementeran bezala, eskualdeko MPA-PD gobernua MUOSaren eraikuntzari onespina eman zionetik (2011ko ekaina), langileak gau ta egun lan egitera behartu dituzte instalazioa amaitzeko eta parabolen martxan jartzea errekor denboran burutzeko, Artelatzen babes-eremuan mendixka bat lautu eta desagerrarazi ostean. Historia zaharra da amerikarren eta mafiaren arteko harremanarena: 1943ko lehorreratzetik, gerraostean, Sigonellan, Comison... egindako lanetan, mafiaren ekonomia izan da betidanik fidagarriena, trukearen logika jarraituz: dirua eta gizarte estatusa, ordena publikoaren eta obretako bake sindikalaren kontra.

Apurtu beharreko zor-agiri bat

Paradoxikoki, hogeita hamargarren urteurrenak bi hiriak lotzen ditu. Comisoko aireportua, euro-misilentzako basea zegoen lekuan eraiki zen, kostua 46 milioi eurokoa izanik eta aspaldi amaituta egon arren, ez zen zabaldu. Hainbat arazo baliatuz estali dute ez zabaltzearen benetako arrazoia: MUOSarekiko bateragarritasun eza, aireportua MUOSetik hain dago gertu ekipoen, airekoen zein lurrekoen, funtzionamenduan interferentziak izango lituzketela.

Sizilia, lehen baino okerrago dago. Ejertzito amerikarratik okupatua, Pentagonoaren estrategiengatik zorretan eta etorkizunean azken generazioko armamentu sistema aurreratuentzako proiektua izateagatik edonolako errepresalien arriskupean.

1943ko lurrartze amerikarraren ondoren, Siziliako herriak ordaindu behar izan zuen zor-agiria, itzelezko kostua izaten jarraitzen du, 70 urte igaro diren arren. Horregatik, gu anarkistak bezala, Mirikani Jativinni! Pasahitza berreskuratzea garrantzitsua dela pentsatzen dugu, gure leloa izan zelako Comisoko misil basearen eraikuntzaren aurkako borrokan⁸ eta baita gerora ere; beraz, gaur inoiz baino ozenago oihukatu behar dugu MUOSari EZ! Mirikani Jativinni! Gaur inoiz baino gehiago protesta mugimendu indartsu batekin aurretik eramane behar ditugu ez bakarrik militar amerikarrak, baizik eta zerbitzari politiko guztiak eta sudurraren puntan jartzen zaiena egiten uzten dieten konplize guztiak, Raffaele Lombardo gobernadoretik hasita, MUOSaren gudua bideratzen dabilen fiskaletik jarraituta, zeina duela urte bete honen eraikuntza

8 80.hamarkadan, AEBek Comisoko, Sizilia, base militarrean misil batzuk uztea erabaki zuten. Manifestazio erraldoiak eta piketeak egiten ziren basearen parean honen kontra.

onesten zuen eta urteetan zehar itsu eta gorrarena egin zuen, bai Berlusconi (2005) AEBei “baimena” eman zienean MUOSa eraikitzeke, baita Prodiaren gobernuak (2006) baieztatzen zuenean ere.

Herritar oposizioa eraiki

Probintzia askotan dago martxan sentsibilizazio kanpaina sendoa eta honek isiltasunaren estalkia kendu du, baina batez ere delegatzearena. Duela pare bat urte Niscemin mobilizaziorako deia zabaldu zen; hamar mila pertsona atera ziren kalera; protesta orokor baten udaberria adieraz zezakeen aurkaritza, baina kaiolarazten utzi zena klase politiko iruzurti eta ziniko baten hitzengatik, politikari hauek urte bat beranduago ez zuten zalantzarik izan galtzak jeisteko patroia amerikarraren aurrean. Orain, eusten jarraitu nahi duten Niscemitar horiei esker, ehunka komite NoMUOS sortu dira irlaren hego-ekialdean zehar eta zabaltzen ari dira erdialdeko eta ekialdeko gunetara; euren artean errealitatea desberdina izan arren, oso garrantzitsua den lana burutzen dihardute MUOSa ezagutaraztea, ehunka informazio mahai eta sinadura bilketa, dozenaka hitzaldi, manifestazio, elkarretaratze antolatuta, hauei esker herritarrak geroz eta informatuagoak daude eta “MUOSTro”aren aurkako borrokaren kontsentsua maila esanguratsura heldu da.

Haunditzen ari da, misilen aurka, Irakeko esku-hartze militarren aurka, Sigonellako⁹ desmilitarizazioaren alde borrokatu zuen Comisoko belaunaldi “zaharra”rekin batera, ingurugiroarekiko sentiberatasun sendoa duen belaunaldi berria, pixkanaka MUOSak dakarkigun gerra testuinguruaren kontzientzia hartzen doa eta ohartu da batzuek aldarrikatzen duten metodo kontraesankor eta inozoetatik (alkate eta diputatuen esku utzi, jasotako ehun mila sinaduren “boterean” sinestu, guda sinbolikoetan gehiegizko konfiantza izan) haratago, MUOSa blokatu behar dela, edo edonolaz eraitsi behar dela, NRTFaren basearekin eta Siziliako base amerikar guztiekin batera. Osasunaren eta ingurugiroaren kezkatik hasita, Mediterraneo itsaso baketsutik pasatuta eta aktibismo autonomoaren dinamikarekin alderdiak ahaztuta, hauek, orain pixkanaka NoMUOSaren kanpainara hurbiltzen ari direnak eskualdeko hauteskundeak gerturatzen doazen heinean.

Borrokaren aro berria

Horrela, zati bat mobilizazioen bigarren fasera jauzia egiteko prest dagoen bitartean, artelatz-basoan elkarretaratzeak burutzeko, helburu estrategikoak dituzten ekintza zuzenak bidertzeko, politikari eta militar italiar eta estatubatuarrei enbarazu egiteko ekimenak aurrera eramateko, beste leku

⁹ Sigonellan, Sizilia, NATOren Aireko base militar bat aurkitzen da. AEBko itsasaireko estazio batez eta Italiako Aireko Indarren aireportu batengatik konposatua dago.

batzuetan, oraindik lehenengo fasean daude sentsibilizazio eta oinarrizko errealitateen eraikuntzan, azkar estaltzen ari den atzerapen honen arrazoi nagusia Siziliako ezkerreko militanteen gehiegizko logura da, irlaren militarizazio arazoarekiko interes falta izugarria erakusten dute, nahiz eta oso hertsiki lotuta dauden entzunagoak diren beste gai batzuekin, hala nola: langabezia, zerbitzu eskasia, ingurumenaren txikizioa, mafia...

Ezin da gehiago atzeratu MUOSaren aurkako borrokaren garrantzi nazionala onartzeko helburua, konpromiso hau hartzen dugu guk, anarkistok, egunkari honek, guztiz nahasita gaude; guk editatu dugu orain arte eskuratu daitekeen ezinbesteko baina aldi berean oso zehatza den kontrainformazioko testu bakarra, “ecoMUOStro bat Niscemin, XXI.mendeko gatazkentzako arma perfektua”, Antonio Mazzeorena. Massimo Coraddu, NoMUOS mugimenduko jakintsuari aipua eginez, arrisku elektromagnetikoekiko trebetasunak garatu zituen Turíneko Politecnikan Massimo Zucchettirekin batera; gure kideetako bat dena (ikusi zenbaki honetan agertzen den elkarrizketa).

Zantzu guztiak ditu MUOSaren aurkako borrokak laster borroka herrikoi, zabal eta zirrargarria bilakatzeko; gaur, berriz ere momentua iritsi da lehentasunen eskala ikusteko, duela 30 urte Comison egin bezela.

ROMA, ITALIA: MUOSari EZ.

MOBILIZAZIO ANTIMILITARISTA BERRI BATEN ALDE¹⁰

MUOSa estaldura globala duen radar bidezko telekomunikabide sistema da, burutze fasean dago, eta lau lur-radar instalazio burutzea eta beste lau satellite orbitan jartzea aurreikusten dira. Sistema honek, inoiz egindako proiekturik handiena osatzen du berregiturapen anbiziora eta modernizazio militarri begira, ezinbestekoa amerikar marinarentzat, euren operazio militarrek zuzentzeko itsasoan, zein airean, zein lurlean, etengabeko zabalkuntza duen gerra internazionalaren agertokian.

Sistema honek jasotzen eta igortzen dituen informazio ikaragarriek, emisio elektromagnetiko oso ahaltsoak sortzen ditu, gainera, ekosisteman era suntsigarrian jotzen du, gerra zibernetikoaren teknologiaren azpiegitura eta erabilgarritasunen koordinaketa bermatzen du: dronak, gidaririk gabeko hegazkinak mota guztitako armamentudunak, propulsiotzko urpekari-ontziak eta armamentu nukleardunak, azken modeloko ehiza-hegazkin bonbaketariak. Merkatu berriaren zabalkunde eta finkapena ziurtatuko duen gerra makina neo-koloniala, eta honekin bat hain garestia izan den berreskurapen ekonomikoak administrazio bakar eta ahalguztiduna izango du.

Gaur egungo eszenatoki internazionalak ez du alde handirik XX.mendeko gerra handien aurretiko garaiekin. Garai historiko horrek, gainproduktio kapitalistak sortutako lehen krisi handia adierazten zuen. Orduan ere potentzia boteretsuenek, euren estatusak mantentzearen, zabalkundean zeuden merkatuetara begira jartzen zituzten kañoiak. Abertzaletasun sentimendua indartu interes nazionalen defentsan eta politika eta gerra ekonomiaren arteko batasuna finkatzea zen lehentasuna merkatu finantzieroen norakoa jasotzeko.

Gaur, terrorismo internazionalari esker, gailu militarrek eta beren asmakuntza teknologikoak, olio orbana bezala zabaltzen ari dira, nazio-estatu mugak zeharkatzen dituzte eta segurtasun, kontrol eta barne-gatazkaren errepresio politiketara iristen dira. Ikerketa eta erabilera militarren arteko trukeak gizarte osoa bustitzen du, unibertsitateetatik hasita, ENEA (teknologia berrien, energia eta garapen ekonomikoaren iraunkorraren agentzia nazionala) bezalako ikerketa zentro handietara eta CNRra (Ikerkuntzarako Kontseilu Nazionala) iritsiz. Italiako ikerkuntzaren garapena publiko zein pribatua, emaitza interesgarriak ematen ari da hainbat sektoreetan hala nola nano/bioteknologikoan, robotikan eta inteligentzia artifizialean, erabilpen-bikoitzeko (zibil-militarra) zertarakoetan erabilera handiarekin. Zientziaren

10 http://informa-azione.info/no_MUOS_per_una_nuova_mobilizzazione_antimilitarista -tik atera eta itzulua.

adar berri hauek abiada handiko iraultza dakarte ez bakarrik gerra sistemenezko baizik eta gizarte osoarentzako.

“Agindua, Kontrola, Komunikazioa, Inteligentzia eta Miaketa” C4ISR izenez ezaguna, funtzionamenduan dagoen ikerketa militarreko sektorearen sistemen automatizazio haundiagatik MUOSaren osagai estrategikoetako bat da. Gerrarako mekanismoen despertsionalizazio eta alienazioa geroz eta gehiago agertzen den errealitatea da eta gatazkaren hautematea eraldatzen ari da: lurralde bat bonbaz josteko nahikoa da sofa batean eroso jartzea, pantaila eta joystick bana esku hartzearen adiera berri honekin, txikizio masiboko armen garapenarekin bat eginik, agerikoak diren arrazoiengatik, planeta honen bizitzarako mehatxu geroz eta zuzenagoa osatzen dute.

MUOSa teknokrazia androkratiaren berretsiera irudikatzen du: nagusitasun teknologikoa, obsesiboki bilatua eta lortua elite politiko-ekonomiko-militarregatik, euren guztizko gauzatzearen arrazoa kontrolezko eta erasozko sistema honetan aurkitzen duena. Maila altuan zentralizatuta eta hierarkizatuta duten egitura, indarrezko eskubidearen inposaketaren kontzeptu patriarkalaren ondorioaren erakusgarri da. Inposatu den Estatu totalitarioaren izatearen arrazoa estatu demokratikoaren kontraesan zenbaezinei etekina ateratzean datza.

Defentsa Ministerioa eta AEBko Defentsa Departamenduaren arteko 2006ko akordioek garbi diote: MUOS proiektuaren inguruan, Nissemiko NRTF basean kokatua, “ez dago modurik italiar agintariek euren soberania ezta kontrolik ere burutzeko”. 70.hamarkadako gerraosteko kontrairaultzako maniobren jarraipen bikain bezala (Gladio operazioa, Tentsio Estrategia...), Italia eta AEB gizartearen kontrolerako trama burutzen dihardute, kontrol hau zabalagoa izan dadin nahitaezkoa da gerra hiperteknologiko etengabea inposatzea.

Mintzaldi antimilitaristaren berreskurapena, gertatzen diren herri gatazken puntu kritikoetan, praktika antiautoritarioen historiaren aberastasunaren berritze eta eguneratzea da. Estatuaren aurkako zipitz bat gehitzea lurraren defentsarako borroketan eta kapitulu garrantzitsuak zabaltzea borroka hauen inguruan bai teknologia berrien ikerketa eta garapenerako zentroetan, bai mirabetza militarrean, bai ikerketa zentroetan, bai biltegiatze eta higitze nuklearreko lekuetan, baita lur jipoitu, hondatu eta suntsitu honetan jarraitzen duen kutsaduraren inguruan. MUOSaren aurkako borroka hasiera berri bat izan daiteke.

Romako Anarkista Antimilitaristak.

EKINTZAILEAK BASE AMERIKARREKO DORREETAN: BI ATXILOTU¹¹

2013ko apirilren 22ko arratsean, NoMUOS mugimenduko ekintzaile batzuk Niscemiko base militarreko segurtasun neurrietan zirrikitu bat egitea lortu zuten, eta euren gorputzak protesta gisa erabiliz, baseko zenbait dorre eskalatu zituzten. Jarraian, bi ekintzaile atxilotu zituzten eta beste bi salatuak izan ziren, baina aske utzi zituzten. Bitartean, Estatu Batuetako enbaxadatik biztanleriarengan lasaitasun mezua zabaltzen ari dira Niscemin eraikitzen ari diren instalazioek osasunean dituzten eraginen inguruan, atzo base barruan antenak eskalatu zituzten 4 manifestarrietatik biren egoera okerrera dioa. Nicola Arboscelli eta Turi Vaccaro atxilotuak, lehen mailako ofizialari erresistentzia, kalte eta lesio larriagotuak akusaziopean. Biek gose greba iragarri dute.

“Estatu Batuek mantentzen dute, ziurtasun osoz, protesta baketsuaren eskubidea. Hala ere, egitura militarren muga ilegalki gurutzatu izanagatik eta Estatu Batuetako jabetzaren suntsiketa nahitako eta burugabeak arriskuan jarri dituzte hala manifestariak berak nola laguntza taldea ere. Ekintza hauek gaitzesten ditugu.”

Esaten du Italiako AEBtako enbaxadako atariko atean zintzilik dagoen oharrak, atzoko protestari erantzun gisa non lau NoMUOS manifestarik hainbat antena eskalatu zituzten Niscemiko basean.

Desirée Ristagno eta Simona Spinellorentzat salaketa jarri eta aske utziz zona militarrean sartze arbitrarioagatik. Akusazio berdina Nicola Arboscellirentzako, NoTAV piamontés ekintzailearentzako, eta Cataniako bakezalearentzako, Turi Vaccarorentzat. Azken biak atxilotuak izan ziren autoritateari erresistentzia eta kalteak (Vaccarorentzako) akusaziopean. Arbosceni ere akusatuta dago lesio larriagotuengatik. Baina gaur, beste manifestari bat ekintzez autoakusatzen da, bera ere kontatutako ekintzan sartuta. Vaccaro eta Arboscelli, Caltagironeko espetxean giltzapetuta, gose greba bat iragarri dute eta atzo arratsaldean (apirilak 22), eserialdi espontaneo bat burutu zen beraien babeserako Niscemiko polizia-etxe parean. Gaur, beste bat, oraingoan Caltagironeko Tribunalean. Baliozkotze entzunaldia biharko dago finkatuta, apirilaren 24ean 11:00tan, magistratu eskudunak erabakiko du espetxeratzearen edo epaiketa bitartean aske uztearen artean.

Agintari estatubatuarren arabera, “MUOS dorreen eraikuntza bertan behera gelditu da denboraldi batez”. Ala ere, atzoko ekintza eragindakoa izan zen – diote ekintzaileek- Eskualdean inposatu dituzten lanen etenaldiekin jarraitu

¹¹ http://informa-azione.info/noMUOS_attivisti_sui_tralicci_della_base_americana_due_arresti -tik etera eta itzulia.

nahi dugunongatik. Azken egunotan zabaldu den bideo batek azaltzen duen bezela.

Niscemiko “Naval Radio Transmitter Facility”a (NRTFa) martxan jarraitzen du eta biziki garrantzitsua da NATOren operazio militar eta gizaldekoentzako. Bestalde, enbaxadako ur handiko arrainek azpimarratzen dute: “gaurko (apirilak 22) ekintza ilegal eta burugabeak, manifestari talde batek eginak, arriskuan jartzen dituzte operazio hauek”. Italiako Defentsa Ministerioak babesten duen tesia. Bestalde, AEBtako gobernuarentzat protestarako arrazoirik ere ez dago: “zonaldean bizi diren biztanle batzuek azaldu dituzten MUOSaren egiturari inguruko ardurak ulertzen ditugu eta italiako gobernuarekin guztiz elkarlanean aritzearen arrazoia dira, osasunean duen eragina aztertzen duen ikerketa berria burutzen ari gara, 2013ko maiatzaren 31 baino lehen bukatuta egongo dena. Ikerketa bat, ziur gaudena MUOSaren egituraren segurtasuna baieztatuko duela”. Baina, jakintsu talde horretatik kanporatuta izan dira Massimo Zucchetti, Turíngo Politeknikako irakaslea eta Niscemiko udaletxeko aholkularia, eta eskualdeko Ingurugiro eta Osasun aholkulariek erabakitako bi irakasleak. Erabaki hauek areagotu egin dute ekintzaileen arteko tentsioa, aste honetarako mobilizazio ekimen andana bat iragarri dute hain zuzen.

ERRESISTENTZIAK JARRAITZEN DU, DEFENTSA BAKARRA ERASOA DA¹²

Ekintza errepresibo hauek jasateaz nekatuta gaude: urruntze-aginduak, salaketak, etxe miaketak, auto miaketak, Italia osotik bidaiatzen duten ekintzaileen maleten miaketak, eta orain beste bi atxilotu (eskerrak, gure artera segituan bueltatu dira); gehiegikeria hauetaz, poliziaren harrotasunaz eta Presti komisarioaz, muga pasa duena, nazkatuta ez gara ahazten gure amek jasan izan duten indarkeriaz, ez gara ahazten gure ahizpa Desyren, Turiren, Nicolaren eta guztion erasoaz. Nahikoa da esaten diegu sasi-politikarien adar jotzeari, italiako gobernu txotxongiloari naiz eta erdi-eskuindarrak izan edo erdi-ezkertiarrak edo teknikoak edo jakintsuak izan, denak dira MUOSaren aldekoak.

Lehenengo manifestazio nazionalaren bezperan ulertu genuen, magistraturak MUOSaren lanak gelditzeko eskatu zuenean eta jarraian etenaldia bertan behera gelditu zenean, imajinatu genuen bezela.

Ulertua genuen megagarabia iritsi eta bi egun lehenago, Cancellieri ministrak esan zuenean MUOSA eta Niscemiko US Navy base osoa interes estrategiko militarrekoa zela bai italiarentzat baita bere aliatuentzat ere.

Bigarren manifestazio nazionalaren bezperan ere ulertu genuen, martxoko 30ekoa, Crocettak¹³ siziliarrei MUOSaren eta 46 NRTF antenen kontrako manifestaziora ez juteko gonbidapena zabaldu zienean, etenaldi faltsu baten iruzurrarekin.

Defentsa ministroak momentu hoietan TARaren (Terminal Area surveillance Radar) aurrean heldu zion Siziliako herriak aurrera eramandako MUOSA eraikitzearen baimenaren baliogabetzeari.

Eta orain, adiskideok, zer egingo dugu?

Lagunok denok batera azpitik bultzatu dugu, zanpatu egin dugu erakundeek ahalkez entzun gaituzten arte, borroka zirriboratu dugu, erresistentziazko borroka, batzen eta indartzen ari gaituen borroka inbaditzailea bota arte.

Guztiok moztu ditugu sareak, base nazkagarri hori saboteatu, beraz guztiok batera esaten dugu:

ASKI DA!

Geroz eta ozenago oihukatzen dugu, parte-hartzaile asko behar dira basea benetan blokatzeko.

12 http://informa-azione.info/noMUOS_attivisti_sui_tralicci_della_base_americana_due_arresti-tik etera eta itzulia.

13 Crocetta italiako Alderdi Demokratikoko partaide da eta 2012an Siziliako Eskualdeko Presidente atera zen.

Denok dakigu saltzen jarraitzen gaituztela, suspertu gaitezen, lehenbailehen eta berreskura dezagun gurea dena, gure lurraldea berrartu dezagun, gure ideien praktika biziarekin jarraituz, etsaia zapaltzen, gogaitzen, izorratzen, lurreko boteretsuei erasotuz, beraien Risk madarikatua leherraraziz, Niscemin MUOSaren aurka hasiz, Marsalan tunelaren kontra, Gelan petrokimiken aurka, Catanian Sigonella eta egunerokoan jasaten ditugun hondamen guztien kontra. Orain batuta gaude, jaiki gaitezen!

Piztuko diren borrokak izango dira eta zehatzak izan beharko dira, benetako herri erresistentziakoak.

Nahikoa da esaten diogu “laguna” den politika gogogabe, ahul eta biktimistari.

Kide ekintzaileak, ez da bakarrik MUOSaren aurkako bataila, gerra hau italiako Estatuaren aurkakoa da, mundu osoan zehar heriotza zabaltzen duen barra eta izarreko beste Estatu baten agindupekua izateagatik; Elizaren aurka guzti hau onartzeagatik, eurek ere beren irratiko erradiazioarekin ere jendea hil egiten dutelako; kapitalaren aurka gure borrokaren arrazoia delako.

Beste erresistentzia eraiki dezagun, Mediterraneoan foku berri bat sutan jarri, Boterea denok batera eraisteko eta beste motako bizitza eredu bat eraikitzeko.

Pentsatzen duzuen esan nahi duzuen guztiontzat, deitu telefonoz (0039-0933888111), faxak bidali (0039-0933888127) Gabrielle Presti komisarioari edo e-postak (comn.niscemi.cl@pecps.poliziadistato.it) zuzenean Niscemiko polizia-etxera.

“Etsaiak aurrera egiten du, gu atzeratzen gara; etsaiak kanpatu egiten du, guk gogaitzeko ekintzak egiten ditugu; etsaia nekatuta dago, gu erasotzen dugu; etsaia atzeratzen da, guk jarraitu egiten dugu”.

NoMUOS ekintzaileak.

KONTRA INFO ELKARRIZKETA LISBOAN NoMUOSei¹⁴

Maiatzaren erdialdean NoMUOS kide batzuen Lisboako sesio informatiboaren inguruan <http://www.pt.indymedia.org/conteudo/agenda/25150>, Kontra Infoko partaide batzuk elkarrizketa bat egiteko aukera zutela eta aprobetxatu zuten. NoMUOSa erabilpen militarerrako satelitez eta antenaz jositako komunikazio megasarearen eraikuntza salatzen duen mugimendua da, hauen inguruko informazio gehiago jarraian.

Kontra Info: Zer da MUOSa?

NoMUOS: MUOSa italian garatzen ari diren proiektu militar anitzetako bat gehiago da; osasunaren aurka, herritarren nahiaren eta errespetuaren kontrakoa. 2012an, oraindik ere gerra maitatzen da. Mobile User Objective System-en akronimoa, marina militar estatubatuarrak garatutako satelite bidezko telekomunikabide bateratuen sistema da, bost satelite geogonkorrez eta lau lurreko estazioz osatua. Estazio hauetako bakoitza 18,4 metroko diametroa duten hiru parabolika haundiz eta 149 metroko UHF bandako bi antena haundiz osatua dago. Sistema hau mundutik sakabanatutako sistema militar estatubatuarrak zehaztasun osoz koordinatzeko erabiliko da, bereziki dronak (gidaririk gabeko hegazkinak) eta urpekari-ontziak, baina baita ere komunikazio zibilak kontrolatu ahalko ditu.

MUOS programa, AEBtako defentsa departamentuaren gestiopean, garapen fasean dago oraindik eta aurreikusten da 2015erako sateliteak orbitan sartzea.

C: Zein neurritan da MUOSa arriskutsua?

N: Momentu hauetan hiru estazio lurter eraikita daude, Virginian, Hawaii uhartean eta Australian kokatuak, denak desertu zonaldeetan banatuak. Sizilian proiektatua izan dena da bizitoki eremuetatik nahiko gertu egingo den bakarra, beraz ez du Nissemiko biztanleengan eragina izango soilik –lerro zuzenean basetik bi kilometroko distantziara besterik ez daudenak- ondoko herriengan ere bai (Vittoria, Comiso, Gela, Caltagirone, Acate).

Baita ere esan behar da Nissemiko NRTF-8 (Naval Radio Transmitter Facility) base militar estatubatuarrak, MUOS estazioa ipiniko den lekua, 1991. urtetik aurkitzen dela funtzionamenduan eta dagoeneko 500 eta 2000 KW-eko emisio potentzia duten 41 antena dituela. ARPA Siziliak jasotako datuekin egindako ikerketen arabera baieztatzen da zientifikoki frogatuta dagoela egungo

¹⁴ <http://pt.contrainfo.espiv.net/2013/05/31/lisboa-entrevista-a-membros-no-MUOS/> -tik atera eta itzulua.

instalazioak emisio elektromagnetikoentzako ezarritako legearen muga gainditzen duela.

Sortutako eremu elektromagnetikoak edozein gailu elektronikorekin interferentziak sor ditzake hala nola by-passekin, gurgil aulkiekin, taupada-markagailuekin, 140 kilometroko distantziara egonda ere. Giza osasunean efektu ohikoenen artean, azaltzen dira erretina-askatzeak, kataratak, antzutasun arriskua eta tumoreen sorrera. Tamalez, tumoreen kopurua orokorrean haundiagoa da umeen artean, batez ere leuzemiaren kasuei erreparatuz. Guzti hau oraindik ere interesgarriagoa egiten duen beste “xehetasun” bat emateko esan dezagun base militarra babestutako natura eremu baten barruan dagoela, Nissemiko Artelatz-basoan, artelazkia edo kortxoak duten Italiako parke natural urrietako bat, landaredi dentso eta ikusgarria duena, legediaz babestua dena eta eremu barruan denoi kalteak sortzea edo fauna eta landaredia hondatzea debekatzen diguna. 2000.urtean, parkea Red Natura 2000n sartu zuten garrantzi komunitarioko leku gisa (sic).

C: Zer da NoMUOSa?

N: Nissemiko NoMUOS komitea, testuinguru honetan sortzen da, azken bi urtetan batu egin ziren, bidertuz, ondoko herrietako pertsonak eta sentiberatasunagatik gaiari atxikitako beste errealitateetako jendea. Berehala, kezka izugarria adieraziz “EcoMUOS” honen ezarpenak ekar zitzakeen ondorioen inguruan, batez ere, giza osasunean, Artelatzaren ekosistemetan eta nekazaritza produktuen kalitatean. Duela lau hilabete baino gehiagotik, NoMUOS komiteko ekintzaileak eta bertako pertsonak gau ta egun zelatatzen dute basearen sarrerako errepidea, MUOSaren eraikuntzarako alokatu dituzten langileei sarrera fisikoki ixtea ahaleginduz, etengabe poliziagatik indarkeriaz desalojatutako blokeoen bidez. Sizilia eta Italiako zenbait herritan herri-borroka hau babesteko komiteak sortu dira.

C: Guzti honen erdian, siziliar mafiari lotutako enpresak mugitzen dira...

Zein da NoMUOSarenganako beraien erreakzioa?

N: Mugimendua aurrez aurre jarri zitzaion mafiari. Mafiari ez zaio hau interesatzen, diru guztia jaso zuen eta orain jarrera neutrala mantentzen du.

C: Sizilian, ingurugiroarekiko sentikortasun haundia duten gazte belaunaldi berria MUOSak garamatzen gerra testuinguruaren kontzientzia hartzen ari da. Borroka hau antimilitarista al da?

N: NoMUOS borroka, inperialismo amerikarraren, gerraren kontrakoa eta burujabetza herrikoia aldekkoa da, helburutzat Siziliako artelazki baso babestuaren eta mundu osoaren desmilitarizazioa duen borroka antimilitarista.

C: Osasunaren eta ingurumenaren kezkatik hasita alderdien aktibismo autonomoaren dinamikara... pasatu zen. NoMUOSaren etorkizuna siziliar belaunaldi libertarioa ote da?

N: Izan liteke, dena kideen abilezien araberakoa da: alderdiei lekurik utzi gabe eta beti presente egoten.

C: Anarkistak bezala, NoMUOSaren barruan zein zailtasun aurkitzen dituzue mugimendua horizontala izan arren?

N: Pazientziaren inguruan aurkitzen dira zailtasunak, jarrera politiko desberdineko pertsonekin elkarlanean aritzeaz eta presarik ez izatea ekintza batzuen burutzean, hauen garrantzia gehiengoak oraindik ulertu ezin duelako.

RADAR ETA ANTENEN AURKA: EKINTZA ZUZENA!

Antenak eta radarrak agertzen jarraitzen dute: boterearen ustiapenerako logiken zerbitzurako tresnak. Hauek, gerrak betiko mantentzearen, heriotza zabaltzearen eta menperatze eta etekinen hedapenaren helburua duten hainbat tresna militarren artean batzuk besterik ez dira, lurra eta animalia guztiak bortxatzearen arduragabekeria azaltzeko.

Geroz eta garrantzitsuagoa egiten da, heriotza eta hondamen ikuspuntu hontatik, Niscemiko base militarra estatubatuarra erasotzea, hala nola base militar guztiak, eta hauen mantentze eta garapenean (enpresa hornitzaileak, mantentze enpresak, ekipamendu eta materialak...) zerikusia duen edonor, ekintza zuzena bere forma guztietan besarkatuz. Nahikoa da boterearekin bitartekaritza egitearen ilusioaz, amai dezagun esplotazio eta opresio mundu honekin.

Inperialismo mota guztien kontra eta Estatu ooren kontra.

Gerren eta militarismoaren kontra.

Natura bortxatzen duen ooren kontra, bere dominazio eta etekinen helburuetara behartzeagatik.

Heriotza zabaltzen eta esplotazioa areagotzen duenaren kontra.

Matxinada etengabearen eta ekintza zuzenaren alde.


Antena guztiak eraitsita eta sare guztia suntsitua izan arte.

Kaltegarria diren gailu guztiak hondakin multzo bilakatu arte.

Uniforme guztiak erre arte.

Niscemiko base militarra egunerokoan erasotzen dutenekin bat eginik eta konplize izanda.

Zenbait anarkista



Sare hau 4 estazioz osatuta dago, Hawaien, Virginian, Australian eta Sicilian (Niscemin zehazki) aurki daitezkeenak. Aurreneko hirurak dagoeneko eraikita daude, baina Niscemin aurkako herri mugimendu sendoa sortu da; ekintza zuzenaren bitartez eta erresistentzia jarduera desberdinez, aurre egiten ari diona inposaketa inperialistari, lurraldearen defentsan, ama-lurragatik, osasunagatik, menperatze teknologikoaren eta proiektu militaristen kontra.

MUOSa mundu mailako kontrolerako eta suntsipenerako instrumentua da.

NO
MUOS